

**Haurren eta nerabeen hizkuntza-erabilera egoera informalean. EAE****Definizioa**

LMH4ko ikasle (10 urte inguruko haurrak) eta DBH2koak (14 urte inguruko nerabeak) egoera informaletan, zehazki, ikaskideekin jolaslekuan eta lagunekin kalean, zein hizkuntzatan aritzen diren jasotzen du adierazle honek.

**Hedadura**

Euskal Autonomi Erkidegoa.

**Aldagaiak eta kategoriak**

- Beti euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Bietan berdin
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beti gaztelaniaz
- Beste hizkuntza batean
- Erabilera orokorra: erabilera-tasa esleitua

Erabilera-tasa esleitua inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko eta balio numerikoa emateko egiten den kalkulua da. Kasu honetan aldagai honetan ikasleek emandako sei erantzun posibleak hartu eta honako erabilera-balio hauek esleitu zaizkie:

- Beti euskaraz = %100 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = %75 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz beste = %50 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago = %25 euskaraz
- Beti gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

Honen bidez, 0tik 100erako eskalan batez besteko datua zein den ezagutzeko aukera dago, sei kategorietako informazioa bakarrean laburtuz. Hizkuntza-erabilerari buruzko ikuspegi orokor bat izatea ahalbidetzen du horrek.

**Azpi-adierazleak (gurutzaketak)**

- Solaskideak eta non:
  - Ikasleek ikaskideekin jolaslekuan
  - Ikasleek lagunekin kalean
- Maila:
  - Lehen Hezkuntzako 4. Maila
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. Maila

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sexua:             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Neska</li> <li>○ Mutila</li> </ul> </li> </ul>	
<b>Iturria(k)</b>	
ARRUE PROIEKTUA	
<b>Iturriaren ezaugarriak</b>	<p>2004tik aurrera Soziolinguistika Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak abian jarritako ikerketa da. 2010. urtean ISEI-IVEI erakundearekin egindako elkarlanerako akordioarekin Ebaluazio Diagnostikoan berariaz integratutako galderen bitartez Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztien datuak biltzen dira. Ikasleek aitorturiko datuak dira, beraz, ikerketak eskaintzen dituenak.</p> <p>Ikerketa honen helburua Euskal Autonomi Erkidegoko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera nolakoa den aztertzea da.</p>
<b>Eragiketaren arduraduna</b>	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Soziolinguistika Klusterra.
<b>Lehenengo datua eta maiztasuna</b>	<p>Lehenengo datua: 2011n egin zen lehen aldiz.</p> <p>Maiztasuna: Bi galdetegi mota dira, bata laburra, bi urtean behin egiten dena, eta bestea osatuagoa, lau urtean behin egiten dena.</p> <p>Ikasleek ikaskideekin jolaslekuan duten erabilerari buruzko informazioa 2011n, 2013an, 2015ean eta 2017an jaso da. Ikasleek lagunekin kalean egiten dutenari buruzkoa berriz 2013an besterik ez da jaso.</p>
<b>Informazio osagarria</b>	
<b>Argitalpenak eta txostenak</b>	<a href="https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2013/03/e_erabilera_web.pdf">https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2013/03/e_erabilera_web.pdf</a>
<b>Galdesorta(k)</b>	Argitaratzeke